


Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna



Material didaktikoa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

GURE INGURUKO ARAZOAK



KRONIKA

Proposamen didaktiko bateratua (euskara, gaztelania eta ingelesa)

Euskara eta Literatura lantzeko sekuentzia didaktikoa

DBH 2

PROIEKTU BATERATUA HIRU SEKUENTZIA DIDAKTIKOEN LAN-ESKEMA

Inplikaturako ikasgaiak: Gaztelania eta Literatura, Euskera eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza, Herritartasunerako Hezkuntza.

Gaia: Gaurko gizartearen arazoak eta nola islatzen diren Hedabideetan: albisteak, erreportajea eta irratikronika.

Maila: DBH 2

Saio kopurua: 8 saio ikasgaiko

Proposamenaren testuingurua

Egun, ukazina da Hedabideek gizartean eta gure bizimoduan duten eragina. Informatu ez ezik, gertakari buruzko iritziak sorrarazi ere egiten dituzte eta iritzien bultzatzaile izan ohi dira. Hedabideen informazio eta iritzien aurrean, beraz, zentzu kritikoa garatu beharrean gaude eta eskolak ezinbestean eutsi behar dio gai horri. Hedabideetako mezuetan islatzen dira gizartearen arazoak, eta horien jatorriak eta konponbideak.

Testu horiek jasotzen duten informazioa modu egokian interpretatzeko, zentzu kritikorekin alegia, garrantzitsua da prentsan erabiltzen diren testu-generoen hizkuntza ezaugarriak erreparatzea.

Marko horretatik sortzen da proposamen bateratu hau: EAEko ikastetxe gehienetan lantzen diren hiru hizkuntzetan, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzen laguntzeko, Hedabideetako testuak oinarri, ikasleek ahozko eta idatzizko testuak ekoitziko dituzte gizarteko gaien inguruan: euskaraz, irratikronika; gaztelaniaz, erreportajea eta ingelesez albisteak.

Ekoizpen horiek ikasleen inguruko arazo eta gatazkek aztergai dituen aldizkari digital batean eta ikastetxeko blogean txertatuko dira.

Hiru sekuentzia didaktikoetan landuko diren oinarrizko gaitasunak:

- ✓ Hizkuntza- komunikaziorako gaitasuna: jarduera guztietan, hiru hizkuntzetan.
- ✓ Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: (es): 0, 6, 7, 8; (eu): 0, 5, 6, 7, 8; (in): 0, 4, 5, 6, 7, 8.
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna: (es): 9; (eu): 7, 9; (in): 9.
- ✓ Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (es): 0, 1, 2, 3, 6, 7; (eu): 0, 1, 2, 3, 6, 7; (in): 0, 5, 8, 9.

Helburu didaktikoak:

- ✓ Hedabideetan ageri ohi diren gizarte gaiak ezagutzea eta aztertzea.
- ✓ Gazteen bizitzari eragiten dioten gizarte gatazkek hausnartzea.
- ✓ Inguruko gatazkei buruzko iritzi pertsonala garatzea eta adieraztea.
- ✓ Hedabideetako narrazio generoen ezaugarriak identifikatzea.
- ✓ Sekuentzietan landutako testu-generoen oinarrizko ezaugarriak ezagutzea.
- ✓ IKTak erabiltzea informazioa era eraginkorrean bilatzeko eta testuak egokitzeko zein zuzentzeko.
- ✓ Testuak planifikatzea aurrez emandako komunikazio egoeraren arabera.

- ✓ Aurrez ezarritako irizpideen arabera, erreportajea, kronika eta istorio digitala idaztea, eta zuzentzea.
- ✓ Beste hizkuntzetan ikasitakoa euskeraz, ingelesez eta gaztelaniazko ekoizpenetan erabiltzea.
- ✓ Elkarrizketetan parte-hartze egokia izatea eta lankidetzaren arauak errespetatzea.
- ✓ Elkarlanerako jarrera egokia izatea.

Edukiak:

- ✓ Gizarte gaiei buruzko gogoeta.
- ✓ Gaurko gizartean garatzen diren gatazkei buruzko jarrera kritikoa.
- ✓ Giza komunikabideetako narrazio generoen analisia: erreportajea, irradi-kronika eta istorio digitala.
- ✓ Narrazio testuen planifikazioa: erreportajea, irradi- kronika eta istorio digitala.
- ✓ Narrazio testuen ekoizpena: erreportajea, irradi-kronika eta istorio digitala.
- ✓ Gaurkotasanari lotutako gaiei buruzko informazioa bilaketa eta hautaketa.
- ✓ Hedabideetako narrazio testuen ezaugarriak.
- ✓ Testuen zuzenketa.
- ✓ Lankidetzaren arauak eta elkarlana.
- ✓ Ahozko zein testu idatziak ekoiztean baliabide digitalen erabilera.
- ✓ Testuen propioen koherentzia, kohesioa eta zuzentasunari buruzko interesa.

Irrati-kronika. Jardueren segida

Planifikazioa

0. jarduera. Motibazioa

Gauzatzea

1. jarduera. Badakigu zer den kronika?
2. jarduera. Eta irradi-kronikak? Berdinak al dira?
3. jarduera. Testua idazteko baliabideak aztertzen.
4. jarduera. Iritzia nola adierazi?
5. Jarduera. Gure kronikaren zirriborroa idazten
6. jarduera. Ahoz esateko praktikatzen. Dikzioa
7. jarduera. Irakurketa espresiboa
8. jarduera. Gure kronika ahozko jardunerako egituratzen

Erabiltzea

9. jarduera. Entzuleentzako grabatzen.

Reportaje. Secuencia de Actividades.

Planificación

Actividad 0. Motivación

Realización

- Actividad 1. ¿Sabemos qué es un reportaje?
- Actividad 2. Definimos el reportaje.
- Actividad 3. Analizamos un reportaje.
- Actividad 4. Aprendemos a plasmar lo que dicen otros.
- Actividad 5. Aprendemos a mostrar la propia opinión
- Actividad 6. Recopilamos la información para nuestro reportaje.
- Actividad 7. Ordenamos la información seleccionada.
- Actividad 8. Redactamos el borrador.
- Actividad 9. Corregimos nuestros reportajes.

Aplicación

Actividad 10. Elaboramos el reportaje definitivo.

Digital story. Secuencia de Actividades.**Planificación / Planifikazioa**

Activity 0: Motivation.

Realización / Gauzatzea

Activity 1. What's a digital story?

Activity 2. Negotiation

Activity 3. The elements of short stories

Activity 4. The story behind the picture.

Activity 5. Watching some digital videos.

Activity 6. Features of your digital story.

Activity 7. What are you interested in?

Activity 8. Writing the story

Aplicación /Erabiltzea

Activity 9. Production Phase

Ebaluazioa. Adierazleak

- ✓ Ea gizarearen errealitateari buruzko gogoeta jardueretan parte hartzen duen.
- ✓ Ea gizarteko hedabideetako narrazio-generoen ezaugarri propioak ezagutzen dituen.
- ✓ Ea bere azken ekoizpenetan erabiltzeko informazio egokia aukeratzen duen.
- ✓ Ea ikasgelako jardueretan ikaskideekin batera parte hartzen duen eta lankidetzan aritzen den.
- ✓ Ea unitate bakoitzari dagokion ahozko zein idatzizko testua egiten duen.
- ✓ Ea ekoizpen propioak zuzentzen eta hobetzen dituen.
- ✓ Ea ikaskideen ekoizpenak zuzentzen laguntzen duen.
- ✓ Ea testu propioak ekoiztean IKT baliabideak erabiltzen dituen eraginkortasunez eta zentzu kritikoz.

Ebaluazio- tresnak

- ✓ Landutako generoen ezaugarriak aztertzeko 1. jarduerako txantiloia (eu), (es) eta (in).
- ✓ Prozesua, zirriborroa eta azken ekoizpenak ebaluatzeko txantiloiak: 9. 10. jarduerak (eu) (es) (in)
- ✓ Irakasleak erabiliko duen beste edozein tresna.

Zein dira munduan eta gure gizartean hizpide diren gaiak? Zerk kezkatzen gaitu? Zeri erreparatu beharko lioke gure gizarteak? Nori lagundu beharko genioke? Langabezia, ekonomia, bidegabekeriak, gizarte desberdintasunak, ideologiak eragindako gatazkak... asko dira pil-pileko gaiak.



Gai horiek hedabideei esker ezagutarazten dira; izan ere, zuzenean edo sinbolikoki gizatalde bati eragiten dion ekintza interesgarriak, albiste edo gertakariak ezagutaraztea da haien eginkizuna. Beraz, betebeharrak sozial garrantzitsuak dute.

Sekuentzia didaktiko honetan, eta gaztelaniaz eta ingelesez garatuko dituzuen beste bi sekuentzietan, hedabideen munduan murgilduko zarete eta Gizartea eta Mundua sailetan

murgilduta, informazioetan barrena bidatu.

Hasteko, behean dituzuen esteketan, "Gizartea", "Mundua", eta "Gaurko gaiak" sailetan sartzea proposatzen dizuegu eta gizartea astintzen duten hainbat arazoren inguruko informazioak irakurri, entzun, ikusi eta aztertu.

<http://www.eitb.com/albisteak/mundua/>
<http://www.eitb.com/bideoak/albisteak/>
<http://www.eitb.com/albisteak/gizartea/>
<http://www.berria.info/mundua/>
<http://www.elpais.com/sociedad/>
<http://www.elpais.com/internacional/>



Munduan, bai, eta gure inguruan? Mundua oso zabala da. Baina zuen inguruak, zuen ikastetxeak eta herriak ere mundua eratzen dute, zeuena. **Zein dira zuen inguruan, herrian zein ikastetxean bizi dituzuen eta gizartean eragina duten egoera arazoak?**



Zeuk bihurtuko zarete kazetari eta euskarazko sekuentzia honetan ahozko kronika gauzatuko duzue. Hartzaileak ikastetxek beste ikasleak izango dira; izan ere, ikastetxeko webgunean jarriko da entzungai. Kronika beraz,

erakargarria eta entzuleen mailara egokitua izan behar da.

Hiruko taldean bildurik, taldekide bakoitzak bi edo hiru gai proposa ditzake, honako irizpide hauek kontuan izanik:



- Zuen interesekoa izatea
- Gaurkotasuna duen gaia izatea
- Gizartean eragina duen gaia
- Entzuleen interesekoa izatea
- Informazioa emateko, gertakariaren lekuko izateko aukera baduzue, oso lagungarria izango da.

Sekuentzia didaktiko honekin batera gaztelaniarako eta ingeleserako beste bi sekuentzia proposatzen dira. Bertan, hurrenez hurren, erreportajeak eta albistek gauzatuko dituzue. Ondo aukeratu zein gai jorratuko duzuen, hiru hizkuntzetan gizarteko arazoengatik inguruan arituko baitzarete.


Taldekideak honakoak gara:
Gai hau hautatu dugu:
Hauxe egingo dugu.
Helburua. Gure ustez, hauxe erakutsi behar dugu:
Egingo dugun lana honela ebaluatu daiteke:

Orain, taldekideok bildu eta erabakiak txantiloia honetan jasoko.

1. jarduera. Badakizue zer den kronika ala ez?

Euskarako unitate honetan narrazioen munduan murgilduko zarete, denbora eta toki jakin batean gertatu diren ekintzen kontaketa, alegia. Seguru **kronika**, **albiste** eta **erreportaje** hitzak sarritan entzun dituzuela, adibidez, kirol-kronikak, Euskadi Irratiko *Goiz Kronika* programa, aldizkarietako erreportajeak, publizitate-erreportajeak

Aztertu beheko taula hau eta begiratu zein zabala izan daitekeen narrazio testuen mundua. **Zein testu-genero ezagutzen duzue? Zein ez?**



Euskaraz, hautatu duzuen gaiaren inguruko kronika idatzi eta ahozko kontaketa gisa atonduta grabatuko duzue. Hona hiru kronika. Arretaz irakurri eta erreparatu ezaugarriei. Txantiloia erabili.

BEHAKETA-ORRIA	1. testua	2. testua	3. testua
<ol style="list-style-type: none"> 1. Zein da igorlea? 2. Zein da hartzailea? 3. Gaurkotasuneko gaia jorratzen da? 4. Zein gai jorratzen du? 5. Denbora jakin batean eta toki jakin batean gertatu diren ekintzak kontaktzen dira? 6. Kronologikoki kontaktzen da? 7. Aditzari erreparatu. Nola dago kontaktuta? Orainaldian, Lehenaldian, Geroaldian 			

8. Idazlea lekukoa da?.Parte hartzailea da?			
9. Kazetariaren interpretazioa eta iritzia ageri da?			
10. Informazioa paragrafotan antolatuta dago?			
11. Egunkarian edo irratian, testu hau beste testu baten jarraipena da?			
12. Egunkarian edo irratian dagoen atal finko batean kokatzen da?			

1. testua

Nairobiko Munduko Gizarte Foroa

Kontxi Kerexeta | 2007-02-09

Urtarrilaren 20tik 25era bitartean VII. Munduko Gizarte Foroa burutu da Nairobin, Kenyan “Beste mundu bat posible da” leloa aldarrikatuz

Afrikan egin den lehen aldia da; aurretik lau aldiz Porto Alegren (Brasil), behin Mumbain (India); eta iaz foro polizentrikoa (Bamako, Karachi eta Caracasen). MGFk milaka pertsona maila lokalean, erregionalean eta mundu mailan mugitzeko duen indarra dagoeneko frogatua du

.Bertara joateko aukera izan dut Saharako Errepublika Demokratikoaren aldeko Gasteizko elkartearekin, RASDeko ordezkari taldearekin batera. Foroa Kasarani Kirol estadioan izan da, hiriburutik 20 kilometrora, 3.000 metro koadrotako espazioan eta hiru gunetan banaturik.

Mundu osoko 80.000 lagun inguru bildu gara “justizia soziala, nazio arteko elkartasuna, generoen arteko berdintasuna, bakea eta ingurumenaren babesa” bezalako gaiak lantzeko. (...) Ondoko arloetan bildu dira landutako gaiak: ura; erakunde nazional/internazionalak eta demokrazia; bakea/gerra; etxebizitza; emakumeen borroka; duintasuna/giza aniztasuna/bereizkeria; giza eskubideak; gazteria; elikagaien ziurtasuna/laborantza erreforma; lana; hezkuntza; ingurumena eta energia; osasuna; ezagutza/informazioa/komunikazioa; zorra; migrazioak; merkataritza askea; kultura; nazio arteko korporazioak; haurtzaroa eta ekonomia alternatiboa. Horietaz gain hainbat kultur ekintza ere izan dira. Foroari hasiera eman zitzaion Kiberan, Nairobiko bazter auzo handiena. Bertatik atera zen martxa bat Uhuru parkeraino. Bertan egun guztian musika izan genuen, mundu osoko musika taldeek girotua eta jendea abestuz, dantzatzuz, aldarrikatuz.... Hurrengo egunetan beste 1.200 ekitalditan parte hartu dugu bertaratuok Saharari buruzko bi hitzaldi egin ditugu hilaren 22an: Ekialdeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideen egoera eta autodeterminazio eskubidea. Aurreko urteetan izandako bideari jarraituz, Marokoko hainbat ordezkari hitzaldiak eragozten saiatu ziren. Mahai-inguruan galde erantzunen unea iritsitakoan, zenbait liskar eragin zituzten arren, egin ahal izan ziren bai goizekoa zein arratsaldekoa. Goizeko liskar horien ondoren, estadioan zehar manifestaldia egin genuen bertan bildutako lagunek. Horren guztiorren ondorioz, arratsaldean jende gehiago hurbildu zen mahai-ingurura eta gainera, zenbait europarlamentari ere bai, Espainiako eta Kataluniako parlamentariak, hain zuzen ere, euren babes hitzak eskaini zituzten. Ondorioz, marokoarrak etorri ziren arren, hitzaldia bukatu baino lehen alde egin zuten. Garaipen handia sahararrentzat

Sei eguneko eztabaida luzeen ondoren, ekimena globalizazioaren aurkako martxa handi batekin bukatu zen.

Gizarte mugimendu aurrerakoien arteko elkarrizketa, hainbat intelektualen ekarpenak jasotzeko aukera, estrategia berriak pentsatzeko, esperientziak partekatzeko eta guztion artean gizartea aldatzeko estrategiak sortzen joateko onuragarria izango den esperantzarekin bueltatu naiz etxera. Nahiz eta kritikagarriak izan daitezken zenbait arlo ere ikusi ditudan indarberrituta, lanerako gogoz eta ametsak ekintza bihurtzeko esperantzarekin itzuli naiz etxera. Eta ni bezala beste milaka

<http://sustatu.com/1170870385>

2. testua

2011/05/02

Kronika: Gazte1+EZ! Eguna Iruñerrian

Larunbatean, Burlatan burutu genuen Iruñerriko Gazte 1+ez! eguna. Lehenik eta behin eskerrak eman parte hartu zuten gazte guztiei. Jarraian egunean burutu genuenaren kronika txikia: Egun osoa aldarrikapenek eta energiaz betetako gogoek bete zuten, gerturatu ginenok argi baikenuen ez zela negar eta dolua egiteko garaia. Trikipoteoarekin hasi genuen eguerdia, 60 bat pertsona bilduz Burlatako hainbat tabernatati solasten eta dantzatzen. Bertso bazkariarekin segituz, giro indartsua bizi ahal izan genuen Burlatara bertaratutakook. Bazkarian 80 lagun inguru elkartu ginelarik, bazkari zoragarri eta bertso alai eta kementsuez gozatu genuen. Bapo-bapo bazkalduta, "Lip Dub" a grabatzeari ekin genion; eta nola gainera! Batzuek bazkalosteko siesta egin ez bazuten ere, berehala erne ipini eta etorkizunera begirako nahiaz bete genituen abestiaren segundoak. Laster ikusgai izanen dugu "LipDub" a eta sareratuko dugu zabaldu dadin.

Eguna amaitzeko eta aldarrikapenekin jarraitzeko Manifa burutu genuen. 200 lagun bildu ginen zakurren begirada zorrozpean. Honek noski ez gintuen kikildu eta "euskal gazteria" edota "gazteak gara, ez terroristak" bezalako oihuek kaleak bete zituzten. Egun xume baina indartsu eta osatu honekin, Iruñerrian emandako gazteon kontrako errepresioari aurre egiteko lehen harria jartzea genuen helburu. Eta lortu dugu zalantzarik gabe. Nahikoa dela argi dugu iruñerriko gazteok. Ez gaude gure jarduerak ixiltzeko eta murrizteko prest. (...)

(ATALA)

<http://www.ateakireki.com/2011/05/kronika-gazte1ez-eguna-irunerrian.html>

3. testua

BAGDAD 1460 GAUEKO AMESGAIZTOA

Auzoan etxe huts asko daude baina denak ez dira hildako edo emigratutakoek utzitakoak. Zoritxarrez, bahiketak geroz eta ugariagoak dira orain. Gerraren hasieran kazetari eta soldadu atzerritarak izaten ziren bahituak, eta polizi irakiarrak geroxeago. Orain jende xumea, gutako edonor izan daiteke bahitua, bere etnia eta erlijioa aitzakia edo, besterik gabe, txanpon batzuen truke.

2006ko udaraz geroztik areagotu da etnien arteko biolentzia krudel hau. Xiita gerlariek sunitak bahitu edo torturatzen dituzte, eta alderantziz, sendiek euren etxeetatik alde egin dezaten. Ildo beretik, Bagdadeko auzo bateko xiita eta suniten arteko populazioa %60 eta %40koa bada, talde txikienari 48 ordu ematen zaizkio bere etxeak utz ditzan. Bertan, beste auzoetatik kanporatutakoak instalatuko dira, auzoen arteko populazio trukaketa

erabatekoa delarik

Bagdadar jatorriko auzo kultur-anitz eta koloretsuak, alanbrez hesitutako guneko monoetniko bilakatu dira oraindik orain. "Auzo-garbiketa"ren ondorioz –honela deitu ohi zaio "fenomeno" honi– xiita eta sunitak ezin dute elkarren auzoetara joan, ezta handik igaro ere. Beraz, zure lanpostura egunero joatea itzulerarik gabeko bidaiari bihur daiteke.

Informatikaria naiz eta, zorionez, nire enpresa etxetik nahiko gertu dago. Dena den, zazpi checkpoint (polizi postu) igaro behar ditut bidean, eta lanera iritsi bezain laster nire ama eta emazteari deitzen diet beti. Egia esan, denok elkarri deika ari gara beti eta horrexegatik urduritasuna jasanezina da telefono konpainiak matxura duen bakoitzean. Leihora edo etxeko atarira ateratzen gara askotan, zain, baina ez gabiltza kalean noraezean; Bagdaden ez

Gure enpresan egoera nahiko bitxia da orain. Nagusia sunita da baina gure egoitza auzo xiita batean dagoenez, Egiptora alde egin behar izan zuen duela bi hilabete. Eta berdin gertatu zen auzoan oraindik gelditzen ziren sunita urriekin. Euren etxe erreak egunero ikusten ditut lanerako bidean, beltz eta hutsik. Orri hauetako argazkiak dituzue, hain justu, nire eguneroko ibilbide bakarren lekuko. Sakelakoaz egindakoak dira denak, kale erdian argazki kamera ateratzea oso arriskutsua da eta.

(...)

Morteropeko eskolak

Duela urtebete hezkuntza sarea berreraikitzeke programa bat abian jarri zen. Eskolak berreraikitzeaz gain, irakasle gehiago kontratatu eta materialak egokitzea zuen helburu IBPen (Irak Berreraikitzeke Programa) egitasmo globalak.

Jendeak pozik hartu zuen ekimena, Irakeko hezkuntza arloa larriki zauriturik baitzegoen 1991ko Golkoko gerraz geroztik. Eskola bakoitzari 40.000 dolarreko aurrekontua eman zitzaion, behar baino dezente gehiago. Azkenean, paretak margotu eta hautsitako leihoak ordezkatu baino ez da egin, eta diru gehiena eraikitzaileen patriketan desagertu da.

Egia da irakasle berri gutxi batzuk kontratatu zirela (...)

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2081/bagdada-1460-gaueko-amesgaiztoa>

- ✓ Txantiloian jasotako datuak kontuan hartu eta konparatu hiru testu horiek gaztelaniaz eta ingelesez irakurri dituzuen testuekin. Zerk bereizten ditu?
- ✓ Zer dute berdin eta zer desberdin erreportajeak, albisteak eta kronikak?
- ✓ Zer da, beraz, kronika? Alderatu zuen definizioa beste talde batzuetan emandakoekin eta idatzi definiziorik onena.

KRONIKA:

2. jarduera. Eta irradi-kronikak? Berdinak al dira?



Testuinguruaren arabera, kronika kontatzeko hainbat era daude.

Jarduera honetan irradi kronika bi jarriko dizkizuegu eredu gisa. Horietako bat aztertuko duzue arretaz bertan erabiltzen diren baliabideen inguruan hausnartuko.



eta

Eredu moduan proposatzen dizuegun kronika honetan Pou anaiei gertatua kontatzen da. Eskalatzaileak Patagoniako mendiak eskalatzen ari zirela, frantziar eskalatzaile batzuek istripua izan zuten. Haiei laguntzeagatik tontorrera heldu gabe geratu ziren. Gainera, beste mendizale batzuei eskatu arren, ez zuten laguntzarik lortu.

Hiruko taldean bildurik, aztertu beheko txantiloia eta gero audioa arretaz entzun. Erabili txantiloia datuak jasotzeko

Kronika:	
Zein da helburua?	<ul style="list-style-type: none"> - Gertaera batzuei buruzko informazio zehatza ematea - Gertaera batzuei buruzko informazioa emateaz gain interpretazioa egitea.
Esataria nolakoa da?	<ul style="list-style-type: none"> - Lekukoa - Parte-hartzailea
Kronikaren egitura zein da?	- KOKAPENA / MARKOA
	- GERTAERA / KORAPILOA
	- BUKAERA / KONPONBIDEA

Nolako hizkuntz baliabideak erabiltzen dira?	<ul style="list-style-type: none"> ○ Aditzaren ardatza: <ul style="list-style-type: none"> - Orainaldia - Lehenaldia - Geroaldia ○ Lexikoa <ul style="list-style-type: none"> - Neutroa - Baloratzaila
Beste baliabide batzuk	<ul style="list-style-type: none"> - Musikaren erabilera. Noiz?..... - Beste baliabiderik? - Ahotsaren bolumena, erritmoa, intonazioa...bai ala ez? - ...

 [Pou anaiak erreskate lanetan](http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/en/country/US/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=2901) (<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/en/country/US/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=2901>) 77

Goiko kronikaren ordeaz, beste hauek ere erabil ditzakezue:

GERNIKA



Gernika 1937-04-26

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/en/country/US/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=29759>

Bonbardaketa eguna oroitzen da pasarte honetan, kronika labur moduan dator, kazetari batek idatziko lukeen moduan. Izan ere, G.L. Steer kazetariari eskainitako libururako sarrera da.

[SLAMDOG-MILLIONAIRE-FENOMENOARI-BURUZ/](#) Pelikulako protagonisten etxeak behera bota dituzte eta horren inguruan aritu da Nagore Telleria bere "Kontrazalean".
<http://www.eitb.com/audioak/osoa/148546/kontrazala-slamdog-millionaire-fenomenoari-buruz/>

3. jarduera. Testua idazteko baliabideak aztertzen.


Gaztelaniaz landuko duzuen sekuentzia didaktikoan besteen iritzia adierazteko hizkuntza baliabideak aztertu dituzue. Estilo zuzena eta zeharkakoa behar-beharrezko baliabideak dira erreportajea, albisteak eta kronikak idazteko eta horregatik, bertan ikasitakoa zuen kronikarako oso baliagarria izango zaizue.



Jarduera honetan, ardatz kronologikoaren garrantzia aztertuko duzue.

Binaka, entzun arretaz aurreko jardueran Nagore Telleriak Euskadi Irratiko *Kontrazalean* egiten duen kronika interpretazioa. Entzun ahala idatzi beheko taulatxoan ordena kronologikoa adierazten duten hitz eta esamolde guztiak edo gertakizunaren denboraren inguruko aipamenak.

Audioa (<http://www.eitb.com/audioak/osoak/148546/kontrazala-slamdog-millionaire-fenomenoari-buruz/>)



Orain, denborazko testu-antolatzaileak eta esamoldeak txertatu *Jaien kronika* testuan

Hasieran Ondoren 9an azkenean Azkenean	azken momentura arte 10an Azkenean Lehenagoko atzo	17:00 inguruan Gau inguruan Beranduago Hortik aurrera
--	--	--

4. testua

Jaien Kronika

Hondarribiko jaiak amaitu dira, zenbait egunetan parte hartzeko aukera izan dut; azterketetan sartuta nengoen, buru belarri baina azterketak amaitu gogo gehiagorekin hartzen dira jaiak, eta horrela 9 eta 10eko egunak aprobe txatu nituen.

..... kontzertu gaua zegoen, Kalite+Atom Rhumba taldeekin. bertan behera gelditu zen kontzertua euria dela eta, hala ere, hor egon ziren musika jotzeko asmoz, baina segurtasuna zela medio ezinezkoa izan zuten jotzea.

..... berriz, Herri Bazkari Popularra. Sarrerak lortzea zail egon bazen ere, zenbait sarrera lortu genituen eta benetan pena merezi izan zuen. Bazkaria baino poteo eta guzti. Eguraldia ere, ez zen oso fin ibili larunbatean euria hasi zen eta, baina hala ere, tabernaz taberna ibiltzeko aukera izan genuen., herriko talde baten Surfing Rock kontzertua, eta eszena toki nagusian Mal de Ojo eta Kaotiko; Rock and rolla berriro ere.

..... gauzak okertu ziren, Dj-ak udako abestiak jarritz, eta lagun batek esan zidanaren arabera, zenbait "Latin King"ek borrokak sortarazi zituzten berain artean. hara Ertzaintza etorri zela ikusi nuen, horrela lagunekin festa beste toki batzuetan egitea erabaki genuen, han ez baitzegoen gauza txantxetarako. Eta "Kontxa" Hondarribira, egia da pena dagoela Pedreñari gertatutakoarengatik, baina baita

zoriona ere Hondarribiak lortutako garaipenarengatik

<http://goiena.net/blogak/29A/44>

4. jarduera. Iritzia nola adierazi?


Gaztelaniako sekuentziako 5. jardueran iritzia emateko hizkuntza baliabideak aztertu dituzue. Modalizazioa, hain zuzen ere. Eta horren arabera, kazetariak bere iritzia agertarazteko nola erabil dezakeen lexikoa aztertu duzue.

Gogoratu bertan aztertutakoa eta ez ahaztu kronika idaztean, egoera interpretatu egiten dela eta hizkuntza baloratzailea erabiltzen dugula, terminologia hain zehatza eskatzen ez duen hizkuntza, hau da, balio konnotatiboa duten hitzak edo esamoldeak. Horrela, gaiari buruz dugun iritzia adierazten dugu.

Idatziko duzuen kronikan hizkuntza aberatsa eta esanguratsua erabiltzeko baliagarria izango zaizue jarduera honetan proposatzen dizueguna.

Lo malo de la gran familia humana es que todos quieren ser el padre

Sí, sí. El jefe querrás decir.



Adiera denotatiboa hitzek berez duten adiera da, hitzun guztiek erabiltzen dutena: hitzak adiera horrekin definitzen dira.

Adiera konnotatiboak lehenengo mailako esanahiari gehitutako balio eta ñabarduren multzoa biltzen du eta ezberdina izan daiteke pertsona batetik bestera. <http://www.hiru.com/>

Jarduera honetan gaztelaniako sekuentzian erabili duzuen testu bera landuko duzue. Lauko taldean bilduko zarete eta nabarmenduta dauden hitzak lexiko baloratiboaz, konnotatiboaz adierazten ahaleginduko zarete.

Talde handian bildu eta testu berak ea zer nolako ñabarduna desberdinak hartzen dituen egiaztatuko duzue beste kideen testuak irakurri ondoren.

<p style="text-align: center;">5. Testua</p> <p>http://www.argia.com/argia-astekaria/2081/bagdad-1460-gaueko-amesgaiztoa</p>	<p style="text-align: center;">Testu moldatua</p> <div style="display: flex; align-items: center;">  <div> <p>Modalizazioa eta lexiko konnotatiboa</p> </div> </div>
<p>Oroimen bizia dut duela lau urte soldadu amerikarrak lehenengo aldiz ikusi nituenekoa, nire auzoan, Bayaa-n (Bagdad hegoaldean). <i>Humvie</i> batetik, <i>jeep</i> tankerako auto erraldoi horietako bat, jaitsi eta etxe azpiko fruta saltzailearengana joan ziren. Neke aurpegia zuten laurak. “Egarriak egongo dira”, esan zidan amak. Beraz, hozkailuan zeuden freskagarriak hartu eta harrera egin genien gure askatzaileei(...). Auzolagunok espontaneoki atera ginen kalera, pozik, urte askotako amesgaiztoa betirako desagertu zelakoan. Irakiarron hirutik bik, hain zuzen, Saddam Hussein boteretik kenduko zuen inbasioa babestu genuen. Baina inork ez zuen hau espero lau urte beranduago. Etsipena itzela izan da, Saddamen garaiak hain txarrak ere ez zirela pentsatzeraino. (...) Auzoan etxe huts asko daude baina denak ez dira hildako edo emigratutakoek utzitakoak. Zoritxarrez, bahiketak geroz eta ugariagoak dira orain. (...) 2006ko udaraz geroztik areagotu da etnien arteko biolentzia krudel hau. Xiita gerlariak sunitak bahitu edo torturatzen dituzte, eta alderantziz, sendiek euren etxeetatik alde egin dezaten. (...)Bagdadar jatorriko auzo kultur-anitz eta koloretsuak, alanbrez hesitutako gune monoetniko bilakatu dira oraindik orain. “Auzo-garbiketa”ren ondorioz –honela deitu ohi zaio “fenomeno” honi– xiita eta sunitak ezin dute elkarren auzoetara joan, ezta handik igaro ere. Beraz, zure lanpostura egunero joatea itzulerarik gabeko bidaia bihur daiteke. Informatikaria naiz eta, zorionez, nire enpresa etxetik nahiko gertu dago. (...). Egia esan, denok elkarri deika ari gara beti eta horrexegatik urduritasuna jasanezina da telefono konpainiak matxura duen bakoitzean</p>	

5. Jarduera. Gure kronikaren zirriborroa idazten

Ondo idaztea ez da bat-bateko prozesua, prozesu luzea baizik. Hasteko Funtsezkoa da lana planifikatzea idazle ospetsuek ere horrela egiten dute;

Irakurri arretaz Julio Vernek elkarrizketa batean kazetari bati erantzun ziona eta azpimarratu bere lan-metodologiaren alderik inportanteenak. Gero, atera testu honetatik Vernek narrazioak idazteko jarraitzen zituen pausuak.

6. testua



...Eta zein dira zure lan-metodoak, monsieur? Pentsatzen dut ez duzula eragozpenik izango zure sekretua argitzeko. Ez dakit zergatik interesatzen zaizkion jendeari horrelako gauzak, baina nire literatur sukaldaritzan erabiltzen ditudan sekretuak kontatzen hasiko natzaizu, nahiz eta ez dakidan urrats horiek jarraitzea inori gomendatu niokeen. Beti pentsatu dut bakoitzak bere estiloaren arabera idazten duela. Neu nire istorioa izango den horren inguruko zirriborro batekin hasten naiz. Inoiz ez naiz liburu bat idazten

hasten hasiera, erdia eta amaiera zeintzuk izango diren jakin gabe. Orain arte nahiko zorte ona izan dut, eskuartean beti izan baitut ez bat, baizik eta dozena-erdi eskema, guztiak buruan definiturik ditudalarik. Inoiz istoriorik bururatuko ez bazait idazteko, lan egiteari uzteko unea izango da orduan. Aldez aurreko zirriborroa bukatu ondoren, kapituluena ordena antolatzen dut; ondoren, lehenengo kopia idazten hasten naiz arkatzez eta orri-erdiko marjina uzten dut zuzenketarako. Gero, testua osorik irakurtzen dut eta berregiten dut idatzi dudan guztia. Benetako lana lehenengo saioekin hasten dela dioten horietakoa naiz, zeren eta fase bakoitzean zerbait zuzentzeaz gain, kapitulu osoak berridazten baititut. Lana inprimatuta ikusi arte gauzak argi ikusiko ez banitu bezala,. Zorionez, nire argitaratzaileak aukera handia ematen dit zuzenketak egiteko, eta sarritan zortzi edo bederatzi berrikuspen egin ohi dut...

NARRAZIOAK IDAZTEKO PROZEDURA

✓

✓

✓

✓

✓



Lana planifikatzeko, beraz, lehendabizi informazioa bilduko duzue. Gaztelania eta ingeles arloetan jaso duzuen informazioa erabiliko duzue.

Beheko txantiloiak lagunduko dizue prozesuaren urratsak behar bezala burutzen

KRONIKARAKO INFORMAZIOA

- ✓ Gogoratu informazio testu bat idazteko erantzun behar diren 6 galderak hartu behar dituzuela kontuan: Zer?, Nor(k)?, Non?, Noiz?, Nola?, Zergatik? Eta ahalegindu galdera horietatik gehienak erantzuten.
- ✓ Ekitaldiaren edo gertaeraren deskripzio kronologikoa egin.
- ✓ Atentzia ematen dizuena kontuan hartu eta apuntatu:
 - Lekuaren deskripzioa (tamaina, eguraldia, zarata...) egin.
 - Pertsonaien deskripzio fisikoa.
 - Pertsonaien sentimenduak interpretatu.
 - Ikusleen sentimenduak interpretatu.
 - Ikusi duzuenaren edo gertatu denaren balorazioa egin.

Gogoratu hiru izango zaretela kronika gauzatzen; pentsatu nola egingo duzuen denek parte hartzeko. Musika lagungarri izango zaizue bakoitzak jorratuko duen atala banatzen laguntzeko eta kronika girotzeko.

Ondoko eskemak lagunduko dizue informazioa antolatzen eta erabakiak hartzen.

Gure Kronika:	
.....	
Zein da helburua?	<ul style="list-style-type: none"> - Gertaera batzuei buruzko informazio zehatza ematea - Gertaera batzuei buruzko informazioa emateaz gain, interpretazioa ere egitea.
Esataria nolakoa da?	<ul style="list-style-type: none"> - Lekukoa - Parte-hartzailea
Kronikaren egitura zein izango da?	<ul style="list-style-type: none"> ❖ KOKAPENA..... ❖ GERTATUTAKOA:




KRONIKA IDATZIA EBALUATZEKO TXANTILIOIA	BAI ala EZ?	HOBETZEKO IRADOKIZUNAK
<ul style="list-style-type: none"> Izenburu erakargarria du, aditz gabea 		
<ul style="list-style-type: none"> Inguruan, herrian zein ikastetxean, gertatutako albistea du kontagai. 		
<ul style="list-style-type: none"> Gizartean eragina duen gaia da 		
<ul style="list-style-type: none"> 6 Wak ageri dira 		
<ul style="list-style-type: none"> Kronikaria lekuko gisa ageri da 		
<ul style="list-style-type: none"> Pentsamenduak eta sentimenduak adierazten ditu 		
<ul style="list-style-type: none"> Informazioa ondo antolatuta dago paragrafotan 		
<ul style="list-style-type: none"> Helarazi nahi duen informazioa kronologikoki antolatuta dago 		
<ul style="list-style-type: none"> Denbora-antolatzaileak ondo erabilia daude 		
<ul style="list-style-type: none"> Lexikoa baloratzaileria da eta kazetariak bere iritzia adierazten du. 		
<ul style="list-style-type: none"> Gramatikalki zuzena da 		
<ul style="list-style-type: none"> Sinatuta dago 		

6. jarduera. Irakurketa espresiboa

Jarduera honetan, testuak modu adierazkorrean irakurtzen saiatuko gara: izan ere, gure kronika grabatu egingo dugu eta ikaskideek entzun egingo dute, beraz, oso inportantea da behar bezala irakurtzea eta esaldiei, perpausei eta testu atalei intonazio egokia ematea. Zertarako? Entzuleen arreta erakartzeaz gain, esaten ari garena ondo ulertzeko.

Modu adierazkorrean irakurtzeko aholkuak dituzue hemen:



TESTU BAT MODU ADIERAZKORREAN IRAKURTZEKO PROZEDURA

- ✓ Hasteko, testua behin baino gehiagotan irakurri isilean, haren esanahiaz zein egoeraz ondo jabetu arte.
- ✓ Argi irakurri eta kontatu behar da, hitz bakoitzari dagokion ahoskera emanaz. Beraz, kontuz ahapeka esandako hitzekin.
- ✓ Kontuan izan hitzak ez direla idatzita dauden bezala ahoskatzen, hainbat hitz elkartu egiten dira, eta elkarketa horrek aldaketa fonetikoak egitea dakar.
- ✓ Irakurketaren erritmoa egokia izan behar da.
- ✓ Ez da oihuka irakurri behar. Ahotsaren intentsitatea narrazioaren arabera egokitu behar da
- ✓ Intonazioari dagokionez, testu idatzian dauden puntuazio-markei erreparatu; izan ere, haiek adierazten dute noiz esan zerbait galdera edo harridura moduan, noiz egin etenak, etab.
- ✓ Kontuan hartu testuaren tonua (serioa, ironikoa,...).
- ✓ Aukeratutako testua era neutroan irakurri lehendabizi eta ondoren, dagokion tonua

Boz gora irakurtzeko prozedura arretaz irakurri ondoren, testua irakurriko duzue ozenki. Gero, entzun nola irakurtzen duten beste ikaskideek. Honako txantiloia erabil dezakezue boz gorako irakurketa ebaluatzeko.

IRAKURKETA. Ebaluazio-orria	BAI ala EZ?
Hitzak ondo ahoskatzen ditu	
Ez du hitz ulertezinik esaten, ez du ahapeka hitz egiten.	
Erritmo egokia, aldatu egiten du behar denean	
Bolumen egokia, aldatu egiten du behar denean	
Puntuazio-markak jarraitzen ditu	
Intonazioa egokia, aldatu egiten du behar duenean	
Aldaketa fonetikoak egiten ditu behar denean	

Irakurketa-jardunak grabatzen badituzue, aukera izango duzue entzun eta konturatzeko zer zuzendu behar duzuen. Horrela, azken ekoizpena askoz txukunago aterako zaizue!

7. testua

Gazteak eta alkohola

Botilak, edalontziak, plastikozko poltsak eta zarata. Jai bezpera da eta gazteen artera etorri gara. Botelloia egiten ari dira, ahal izan duten lekuan erositako alkohola , freskagarriekin nahasten.

Botelloia egiten ari dira, ahal izan duten lekuan erositako alkohola , freskagarriekin nahasten . "Ondo pasatzeko" esan digu batek "lotsa galtzeko" beste batek. Neurririk gabe doan zintzurrian barrura tragoak.

Asteburuetan

Bereziki asteburuetan edaten dute "ja, ja, ja , bai dinagu aste buruetan bakarrik astean hasi gabe" ,astean zehar lagunekin ateratzen badira zerbeza kañaren bat edo eta alkoholik gabeko edariak.

Yolanda

Yolanda ere asteburuetan edanez hasi zen "alkohola baimendutako droga da eta edonoren eskura dago", gustatzen zitzaien, etxean kontsumitu zezaketen otorduetan eta pixkanaka mendean hartu zuen. Ahizpak alkoholarekin arazoa zeukala adierazten zion baina "nik ez daukat problemarik eta utzi bakean" jasotzen zuen erantzuna.

Alkoholikoa naiz



"Yolanda naiz eta alkoholikoa naiz" esaten du. Gaur egun inolako arazorik gabe, gaitz honek harrapatzen zaituenean bizi oso arazo harrapatzen zaituelako , baina "asko kosta zitzaidan onartzea". Laguntza profesionalarekin "bi astetan desintoxikatu nintzen eta 3 hilabetez ingresatuta egon" azaltzen digu. Garai hartan ezagutu zuen Alcoholicos Anónimos www.aaarea3@gmail.com "asko lagundu eta goxotasun handia eman zidaten. Gaur egun berak laguntzen die alkoholaren arazoa dutela onartu eta laguntza eskatzera joaten direnei "gero eta gehiago dira gazteak".

Alkohola eta drogak

"Batak bestea eskatzen du, estimulanteak gero eta gehiago behar dira" azpimarratzen du Yolanda eta horixe entzun

dugu kalean edaten ari diren gazteen ahotik ere. Askok aitortu digute porroak, speeda, kokaina edo eta ketamina nahasten dutela alkoholarekin; baita edaten dutenean maiz gidatu egiten dutela.

Disfrutatu

Yolandak ikasi du bere burua kontrolatzen "lehen ez nintzen ateratzen eta orain ez naiz tabernan sartu ere egiten". Alkoholik gabeko edari asko daudela ohartarazi digu "ur botila bat edanez disfrutatu egiten dut" berak baitaki bestela nolako kaltea izan dezakeen.

Ainhoa Etxebeste - 2010/05/07 | Euskadi Irratia


<http://www.eitb.com/irratia/euskadi-irratia/erreportajeak/oso/414610/gazteak-eta-alkohola/>



hobe

7. jarduera . Gure kronika ahozko jardunerako egituratzen

Euskaraz, normalean, erdaraz ez bezala ordenatu ohi ditugu perpausaren osagaiak. Izan ere, euskaraz ordenarik ohikoena Subjektua-Osagarria-Aditza dugu; hau da, aditza perpausaren amaieran jarri ohi da perpausako elementuren bat bereziki markatu nahi ez dugunean. Gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, ordea, ordena hori ez-ohikoa ez ezik okerra ere bada.



Hala ere, perpausaren hitzak era askotara ordena ditzakegu informazioari tratamendu ezberdina ematen badiogu, hau da, informazioak duen garrantziaren arabera.

Euskara mintzatuan, oro har, askatasun handixeagoa dago hitzak ordenatzerakoan. Binaka, aztertu Pou anaien erreskate lanari buruzko kronikaren honako zatitxo hau. Azpimarratu esaldi bakoitzeko informaziorik garrantzitsuena eta erabaki zein lekutan agertu beharko litzatekeen testu idatzi batean.

8. testua

...Azkenean, denen artean lortu zuten hiru frantziarrek onik erreskatatzea. Hura bai hura garaipena.

Musika

Zapore mingotsa gerorako gertakariak utzi diete egia esan. Asteazkenean, Rio Blanco kanpamenduan hartu zuten atsedean, eta ostegunean, joan zeneko ostegunean, erabaki zuten Paso Superiorrera igotzea. Hurrengo egunerako azken ahaleginaren itxaropena gordeta, nekeak jota, erreskate jardunagatik eta eguraldi iragarpen txarrarekin, baina hala ere gora. Osteguna zen eguraldi oneko eguna, hainbat eskalatzaileek ondo probestu zuten gailurrera iristeko. Hainbat horien artean, asko ziren aurreko egunean erreskatean parte hartzeari uko egin ziotenak.

Musika

Bada, gora igo ziren, Eneko eta Iker bai, baina alperrik. Ostiralean, eguraldiak berriro okerrera, eta hartatik, amore eman behar...

Ba al dago idatzizko testu arruntetan agertzen ez den beste ezaugarririk?

AHOZKO TESTUEN EZAUGARRIAK

1. Esaldiaren ordena aldatuta: garrantziko informazioa atzerago
2. ...
3. ...
4. ...

8. jarduera. Entzuleentzako grabatzen.

Kronika emanaldirako ordua heldu da. Lagungarri izango zaizue ondoko behaketa orria prozesuari behar bezala eusteko.

IRRATI-KRONIKA EKOIZTEKO PROZEDURA

- ✓ Idatzi duzuen kronikaren zirriborroa **berreskuratu**.
- ✓ Saioa **planifikatu**: hiru taldekideen eginkizunak argitu (aurkezlea eta kronikariak).
- ✓ Kronika eta kronikarien aurkezpena **prestatu**.
- ✓ Kronika idatzia ahozkorako **eraldatu**.
- ✓ Nola esan **prestatu**: praktikatu elkarketa fonetikoak, intonazioa, pausaldiak eta abiadura.
- ✓ Zure kontaketa **barneratu**. Nahiz eta aukera izango duzun irakurtzeko, askoz sinesgarriagoa izango da oinarrizkoa gogoratzen baduzu eta entzulea aurrean izango bazenu legez aritzea.
- ✓ Kontatu: **denek entzuteko moduko tonuan**

Hasi praktikatzen! Lehenengo, talde barruan, eta gero, beste talde baten aurrean aritu.

Beste taldeko kideek kronika-emanaldia ebaluatzeko txantiloia erabiliko dute zuen ekitaldia aztertzeko. Txarto egin duzuen hobetzeko iradokizunak ere proposatuko dituzte.

Ondoko txantiloiak erabil ditzakezue irrati kronikak ebaluatzeko.



KRONIKA-EMANALDIA EBALUATZEKO TXANTILOIA			
TALDE LANA	BAI		EZ
1. Kronikak gaurkotasuna du (orduko momentuan). 2. Erreportajea kontatutako albistea du oinarri 3. Gaiak lotura zuzena du inguruan, herrian, ikastetxean gertatutako zerbaitekin 4. Gaiak gizartean du eragina 5. Esataria lekuko edo protagonista da. 6. Ondo egituratuta dago. 7. Kronologikoki kontatzen du. 8. Esatariaren interpretazioa agertzen da. 9. Hizkera bizia eta jatorra, ondo kohesionatuta: lexiko aberatsa... 10. Diskurtsoa egoki lotuta dago: denborazko lokailuak 11. Ez du akats nabaririk egiten 12. Ahozkorako ondo egokituta dago, jarraitzeko erraza. ...			
TALDEKIDE BAKOITZAREN JARDUNA	1.	2.	3.
13. Ahoskera egokia. 14. Denek entzuteko moduko bolumena. 15. Abiadura egokia. 16. Etenaldi egokiak. 17. Dramatizazioa, tonu aldaketak behar direnean. 18. Kontaketa barneratuta, ez zuzenean irakurria. 19. Elkarketa fonetiko egokiak egin ditu			



Heldu da irradi-kronika grabatzeko momentua. Aukera izanez gero, [Audacity](#) programa erabil dezakezue grabaketa egiteko.

Kronika ikastetxeko web gunean jarriko duzue entzungai; horrela, beste kide guztiak gertaeren berri izango dute eta zuen iritzia ere jakingo dute.

Sekuentziaren balorazioa

Sekuentzia honetan zein atal interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?

Zure ustez, ba al da gehiago landu beharko litzatekeen edukirik?

Azken ekoizpena prestatzeko laguntza eta informazio nahikoa izan duzu?

Balioetsi ondoko atalak 1etik 10era bitarteko puntuak erabiliz:

- Sekuentziaren edukiak:
- Erabilitako metodologia:
- Erabilitako materialak
- Saioen erritmoa

Proiektu honetan landu duzun gaiak zure inguruko arazoren baten gainean gogoeta egiteko balio izan dizu?

Zure ustez, taldeka zein bakarka egindako gogoetak balio dizu jokabideak eta jarrerak nolabait aldatzeko? Erabakirik hartzeko? Bai? Zein?